



ODIETAKO UDALAK 2024KO MARTXOAREN 12AN EGINIKO OSOKO BILKURA ARRUNTAREN AKTA.

Erripan, Odietako Bailara, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 2024ko MARTXOaren HAMABIAN, 19:40 direlarik, azpian aipatzen direnak bildu dira bilkura arruntan, legez eginiko deialdia egin ondoren, Alberto Urdaniz Elizondo alkatea buru delarik eta Alfonso Araujo Guardamino Udalaren Idazkariak lagundurik.

BERTARATU DIREN ZINEGOTZIAK: OIHANE ORRIO REY, IÑAKI GUERENDIAIN AZPIROZ, CAROLINA AZANZA MONTALVO, ANE MIREN BUITRON ZAZPE, JUAN PEÑALVER HERMIDA ETA ALBERTO URDANIZ ELIZONDO.

BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK: ANNE OYARZUN DOMEÑO.

Akta honen erredakzioari dagokionez, Udalaren idazkariak jakinarazi du bilkura bide elektronikoz grabatu behar dela. eta, gero, grabazioa audio formatuan gordeko dela «Pleno 12-03-2024» izenarekin USB fitxategi informatiko batean "GRAB PLENOS" izenarekin. Fitxategia udal bulegoetan gordeko da, eta Udalbatzako edozein zinegotzik edo legeak eskubide hori ematen dion edozeinek entzuten ahal izanen du bulego horietan.

Hortaz, bilkura honetako aktaren edukia euskarri horretan jaso egonik, era berean paperezko euskarrian idatzi da, zorrotz betez Toki Korporazioen Antolaketaren eta Funtzionamenduaren gaineko Erregelamenduaren azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 109. 1.atala artikuluan ezartzen den moduan, non adierazten den Udalaren osoko bilkuren aktetan honako hau jaso behar dela:

..... eta beste alderdi batzuk, hala nola, bilkuraren izaera, hori egin den eguna eta tokia, bertaratu diren udalbatza kideen eta idazkariaren izenak

..... bozketen emaitza, harturiko erabakien testua eta bilkura hasiera eta bukaera ordua, **"eztabaidetan hitza hartu duten udalbatzako taldeen edo kideen iritziak eta haietako gorabeherak"**, hori guztia Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 18. eta 19. artikuluen edukiarekin bat.

ODIETAKO UDALA



AYUNTAMIENTO

DEL VALLE DE

ODIETA

31799 - RIPA

(Navarra-Nafarroa)

Hori dela eta, adieraztea aktan azken alderdi hori jasotzen denean, hau da, **“eztabaidetan hitza hartu duten udalbatzako taldeen edo kideen iritziak eta haietako gorabeherak”**, laburpen bat da non lehentasuna ematen zaion zehatz-mehatz esaten denaren funtsezkoari esateko moduaren edo hitzez hitzezkoaren gainetik (grabazioan jasoa), hori guztia akta irakurtzen duten eta bertan egon ez zirenek hobeki uler dezaten; eta, beraz, **litekeena da hitz zehatzak bat ez etortzea grabazioan esandakoarekin, baina bai jarrearen asmoarekin, zentzuarekin eta funtsarekin.**

EH Bildu udal taldeko Ane M. Buitron zinegotziak udalbatzako gainerako kideei esan die bilkura grabatu behar duela, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 79. artikulua 3. apartatuan aurreikusitako eskubidea erabiliz.

Udalburuak saioa irekita, 19:05ean, gai-zerrendako honako gai hauek aztertzeari ekin zaio.

1.- Aurreko bilkuraren akta irakurri eta onestea.

Urdaniz alkateak galdetu du eragozpenen bat dagoen 2023ko abenduaren 12an eginiko osoko bilkura arrunteko aktaren (deialdiarekin batera banatua) edukari dagokionez.

EH Bildu udal taldeko Ane Miren Buitron zinegotziak esan du: aktaren testuaren 2. puntuan badago zuzendu behar den zati bat, EH Bildu udal taldeak 2024ko aurrekontuei buruz eginiko bi proposamenei dagokiena, ez baitago behar bezala adierazita. Lehengo proposamena da “6.000 euroko inbertsioa hiri-lurzoruari dagokionez, Odieta Udalaren Hirigintza Plan Orokorra hasiera batez aldatzeko” eta, bigarrena, “aurrekontuko gastu-partida bat gehitzea, aurrekontu osoaren % 2 edo % 4 artekoa, aurrekontu parte-hartzaileendako, Odieta Udalaren Bazararen bizilagunen ekarpenei irekia eta prestakuntza, aholkularitza, ekin eta arloetan ardatza”.

Ane Miren Buitron zinegotziak esan du aktan ados ez dauden gauza gehiago daudela eta horregatik kontra bozkatu behar dutela.

Horiek horrela, azkenik, akta hau onartzeari buruz adostasunik ez dagoenez, bozketa egin da. Hona hemen horren emaitza:

Aldeko botoak: Urdaniz, Orrio, Guerendiain eta Azanza zinegotziak, guztira, 4.

Kontrako botoak: Buitron eta Peñalver zinegotziak, guztira, 2.

Abstentzioak: bat ere ez.

Bozketaren emaitza ikusirik, akta onartu da.



2.- 2023. urteko ekitaldiko Kontuen Espedientea onestea.

Lehenik eta behin, Urdaniz alkateak bertaratuei gaia esan eta azaldu die, Hitzartze hori bilkurako grabazioan jaso da. Kontuen batzordearen ondoren, zeinak aldeko txostena eman baitzion 2023ko Kontuen Espedienteari aldeko bi botorekin eta kontrako batekin, horren iragarkiak jarri ziren Udalaren iragarki taulan eta web orrian. Hamabost eguneko legezko epea alegaziorik gabe iraganik, orain bidezkoa da Udalak osoko bilkuran espedientea behin betikoz onestea. Xehetasun gisa, esan du aurrekontuaren likidazioren emaitza den diruzaintzako gerakin osoa 183.799 eurokoa dela.

Ondoren gaia labur komentatu da osoko bilkurara bertaratu diren udalbatzako kideen artean, eta gai-zerrendako puntu horri buruz ahobatezko adostasunik ez dagoenez, bozketa egin da. Hona hemen, horren emaitza:

Aldeko botoak: Urdaniz, Orrio, Guerendiain eta Azanza zinegotziak, guztira, 4.

Kontrako botoak: Buitron eta Peñalver zinegotziak, guztira, 2.

Abstentzioak: bat ere ez.

Horiek horrela, eta bozketaren emaitza ikusirik, **erabakia ONETSI DA Udalbatzaren kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoarekin.** Hona hemen erabakiaren testua:

“ Gaia: 2023. urteko ekitaldiaren kontuen espedientea onestea:

.- Ikusirik Udalaren Kontuen Batzordeak 2024ko otsailaren 14an harturiko erabakiaren edukia, zeinaren bidez modu frogagarriaz 2023. urteko ekitaldiaren Kontuen espedientearen alde informatu baitzen.

.- Ikusirik erabakia Udalaren web orrian eta iragarki taulan argitaratu dela eta espedientea jendaurrean jarri dela bizilagunek edo/eta interesdunek alegazioak, kexak eta oharpenak aurkezteko, hamabost egun balioduneko epean iragartzen den egunetik hasita.

.- Ikusirik espedienteari buruzko alegazioak egiteko aldian ez da aurkeztu ez jaso alegaziorik.

.- Ikusirik aplikagarria den araudien edukia: Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 242, 305. eta haiekin bat datozen artikulua; Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 273. artikulua.



AYUNTAMIENTO

DEL VALLE DE

ODIETA

31799 - RIPA

(Navarra-Nafarroa)

ERABAKI DA:

LEHENA.- Behin betikoz onestea 2023. urteko ekitaldiaren Kontuen espedientea. Espediente horren ondorio dira 405.011,09 euroko OBLIGAZIO ONARTU GARBIAK, 172.377,34 euroko GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA, -87.610,66 euroko AURREKONTUKO EMAITZA, , eta 13.995,95 euroko AURREKONTUKO EMAITZA DOITUA.

BIGARRENA.- Erabakia Udalaren iragarki taulan eta web orrian argitaratzea.

HIRUGARRENA.- Espedientearen kopia igortzea Nafarroako Gobernuaren Toki Administrazioaren Departamentura, Toki Administrazioaren Kontabilitate Espedienteetako Datuak Trukatzeo sistemaren bidez (IDECAL)."

3.- Hasiera batez onestea " Odietako udalerriko Lehentasunezko Birgaitze Eremuko (LBE) etxebizitzatarako eraikinak birgaitu edo zaharberitzeko laguntzak arautzen dituen ordenantza"

Lehenik eta behin, Urdaniz alkateak bertaratuei gaia esan eta azaldu die. Hitzartze hori bilkuraren grabazioan jaso da, honela: Aurreko osoko bilkuran ohartarazi zen bezala, orain ekarri da "Lehentasunezko Birgaitze Erremua" izeneko ordenantzaren testua onartzeko. Honen guztiaren xede nagusia da partikularren jabetzako eraikin zaharrak birgaitzeko dirulaguntzak lortzeko aukera gehiago izatea. Zahartzat jotzen dira 50 urte baino gehiago dituztenak. Ordenantza honek esan nahi du jadanik Udaletik beretik emanen direla laguntzak kasu horietan obra baimenen tasen deskontuen bitartez.

Onartzeko ordenantzaren testua antzeko ezaugarriak dituzten Nafarroako beste herri batzuetatik atera da, eta testu bakarra prestatu da, non interesgarrientzat jo diren alderdiak jaso diren.

Ondoren, EH Bildu udal taldeko Ane Miren Buitron zinegotziak hitza hartu du, eta hitzartzea osoko bilkuraren grabazioan jaso da. Hona hemen gai nabarmenenak:

.- Testuaren 5. artikulua edukiari dagokionez, hasieran aurreikusitakoa baino eskaera gehiago egonen balitz eta aurrekontu-zuzkidura handituko balitz, galdetzen du ea Udalak onarturiko beste dirulaguntza lerroekin filosofia horrekin jarraitu beha duen.

Era berean, esan du lehenago ere aurrekontu aldaketak egin direla helburu horrekin eta bere udal taldean beti irekita daudela helburu horretarako partidak handitzera, aurreko ekitaldian erakutsi zuen bezala.

ODIETAKO UDALA



AYUNTAMIENTO

DEL VALLE DE

ODIETA

31799 - RIPA

(Navarra-Nafarroa)

.- Ordenantzaren edukari dagokionez, oro har, uste du zorrotzegia dela laguntzak jaso ahal izateko obra moten eta ukitutako eraikinen eskakizunari dagokionez. Ez du ulertzen zergatik obrek fatxadari bakarrik egin behar dioten erreferentzia edo, gutxienez, fatxadari erreferentzia egin behar dioten beti. Laguntza jasotzeko aukerak gehiago zabaltzea proposatu du. Urdaniz alkateak erantzun dio eskatzen dena dela eraikin zaharrak izatea, hau da, 50 urte baino gehiagokoak, eta horrela adierazten dutela aztertu diren ordenantzek, besteak beste, Uharte Arakil, Villanueva de Arakil, Arbizu eta Oteizarenak.

Ondoren, gai horri buruzko eztabaida sortu da, osoko bilkuraren grabazioan jaso dena.

Azkenik, gai-zerrendako puntu hori buruz ahobatezko adostasunik ez dagoenez, bozketa egin da. Hona hemen horren emaitza:

Aldeko botoak: Urdaniz, Orrio, Guerendiain eta Azanza zinegotziak, guztira, 4.

Kontrako botoak: Buitron eta Peñalver zinegotziak, guztira, 2.

Abstentzioak: bat ere ez.

Horiek horrela, eta bozketaren emaitza ikusirik, **erabakia ONETSI DA Udaltzaren kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoarekin.** Hona hemen erabakiaren testua:

“Gaia: Hasiera batez onestea “Odieta udalerriko Lehentasunezko Birgaitze Eremuko (LBE) etxebizitzatarako eraikinak birgaitu edo zaharberritzeko laguntzak arautzen dituen ordenantza”

.- Ikusirik “ Odieta udalerriko Lehentasunezko Birgaitze Eremuko (LBE) etxebizitzatarako eraikinak birgaitu edo zaharberritzeko laguntzak arautzen dituen ordenantza” horretarako eginiko testua.

.- Ikusirik Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. eta 49. artikuluen eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluen edukia.

ERABAKI DA:

LEHENA.- Hasiera batez onestea “ Odieta udalerriko Lehentasunezko Birgaitze Eremuko (LBE) etxebizitzatarako eraikinak birgaitu edo zaharberritzeko laguntzak arautzen dituen ordenantza”.



AYUNTAMIENTO

DEL VALLE DE

ODIETA

31799 - RIPA

(Navarra-Nafarroa)

BIGARRENA.- *Espedientea tramitatzen hastea Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. eta 49. artikuluen eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluekin eta harekin bat datozenekin:*

- .- Espedientea jendaurrean jartzea hasiera batez onesteko erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Odietako Udalaren iragarki taulan eta web orrian argitaratuz, hogeita hamar eguneko epean, bizilagunek eta bidezko interesa dutenek espedientea aztertu eta erreklamazioak, eragozpenak edo ohartarazpenak egin ditzaten.*
- .- Hasira batez onesteko erabaki hau behin betikotzat joko da jendurreko epean erreklamaziorik, kexarik edo oharpenik aurkezten ez bada.*
- .- Ordenantzaren testu osoa behin betikoz onarturik horren iragarkia eta testu osoa argitaratuko dira Nafarroako Aldizkari Ofizialean."*

4.- Espazio publiko bat desafektatzeko espedientea ADAMO TELECOM IBERIA SAU enpresari lagatzeko telekomunikazio zerbitzuak emateko leku gisa erabiltzeko. Behin betikoz onesteko erabakia.

Lehenik eta behin, Urdaniz alkateak bertaratuei gaia esan eta azaldu die, eta hitzartze hori bilkurako grabazioan jaso da, honela: Aurreko osoko bilkuran hasiera batez onetsi zen Adamorekin sinatu beharreko hitzarmenaren espedientea eta testua, eta horien iragarkiak Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren iragarki taulan eta web orrian argitaratu ondoren, eta espedientearen kontra ez denez alegaziorik aurkeztu, orain bidezkoa da, hala badagokio, behin betikoz onestea.

Jarraian, EH Bilduko udal taldearen Ane Miren Buitron zinegotziak hartu du hitza, eta hitzartzea osoko bilkurako grabazioan jaso da. Nabarmentzekoak dira honako alderdi hauek:

.- Espedientearen aurreko onespenean komentatu zen kontratuaren edukia berrikusi behar zela, eta egiaztatu du ez dela egin eta testua bera dela. Hori dela ea, ondorioztatu du horrek erakusten duela espedienteen hasierako onespenearekin jadanik proposamena erabakita dagoela, gero ez baita aldatzen.

Ondoren, gai horri buruzko eztabaida sortu da, osoko bilkuraren grabazioan jaso dena.

Azkenik, gai-zerrendako puntu hori buruz ahobatezko adostasunik ez dagoenez, bozketa egin da. Hona hemen horren emaitza:

Aldeko botoak: Urdaniz, Orrio, Guendiain eta Azanza zinegotziak, guztira, 4.

Kontrako botoak: Buitron eta Peñalver zinegotziak, guztira, 2.

Abstentzioak: bat ere ez.

Horiek horrela, eta bozketaren emaitza ikusirik, **erabakia ONETSI DA Udaltzaren kideen legeko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoarekin.** Hona hemen erabakiaren testua:



AYUNTAMIENTO

DEL VALLE DE

ODIETA

31799 - RIPA

(Navarra-Nafarroa)

"Gaia: Espazio publiko bat desafektatzeko espedientea ADAMO TELECOM IBERIA SAU enpresari lagatzeko telekomunikazio zerbitzuak emateko leku gisa erabiltzeko. Espedientea behin betikoz onesteko erabakia.

.- Ikusirik Odietako Udalak Odietako udalerrian interes orokorreko telekomunikazioko zerbitzua emateko duen interesa, zerbitzu hori Odietako ahalik eta bizilagun gehienengana iritsi dadin behar diren jarduketa guztiak eginez.

.- Ikusirik ADAMO TELECOM IBERIA SAU LLacuna kaleko 22. 08005, Bartzelona helbide soziala eta A-65232357 IFZ duena, Odietako Udalera jo du eta eskatu dio bi alderdien artean **KOKALEKU BATEN ERABILERA LAGATZEKO KONTRATUA** sinatzeko. Kokalekua bereziki prestatuta egonen da sare-burutza bat instalatu, muntatu, ustiatu, mantendu, kontserbatu, konpondu eta aldatzeko, bere elementu eta osagarri guztiekin ("Telekomunikazio ekipoak"), eta bere xedea izanen da ADAMO enpresa eskatzaileak telekomunikazio eta/edo difusio zerbitzuak ematea Odietako ahalik eta bizilagun gehieni.

.- Ikusirik kokalekua Odietako udaletxeko (San Sebastian kalea 107. ERRIPA) eraikinaren iparraldeko fatxadari dagoela, eta eraikinak Odietako Udalaren jabari publikoko ondasunaren kalifikazioa duela. Hori fatxadari itsatsirik dagoen metro karratu bateko espazioa da, sare elektrikoko konexioa duena.

.- Ikusirik aplikagarria den araudiaren edukia (Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko Foru Legearen 103. artikulua eta harekin bat datozenak eta Nafarroako Toki Entitateen Ondasunen Erregelamendua onesten duten urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuaren 12. artikulua eta harekin bat datozenak). Horiek, ondorioetarako, honako hau adierazten dute:

1.- Kontuan harturik haren erabilera laga behar den espazio hau jabetza publikoko ondasunaren kalifikazioa duela, lagatzearen aurretik haren desafektazioa onetsi behar da jabari publikoko kalifikaziotik ondare ondasun izatera pasatzeko, eta horretarako dagokion espedientea izapidetu behar da.

2.- Espedientea osoko bilkuran ebatzi behar da, aldeztu aurretik hilabetean jendaurrean paratu ondoren. Jabari publikoko ondasuna denez, erabakia Udaltzatuko kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoarekin hartu behar da.

.- Ikusirik Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 2. atalaren edukia, zeinaren bidez ezartzen baita erabaki hori hartzeko Udaltzatuko kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoa behar da.

.- Ikusirik Udal honen osoko bilkura, 2023ko abenduaren 12an eginiko bilkura arruntan, honako erabaki hau hartu zuela:

"Gaia: Kokaleku baten erabilera lagatzeko kontratua ADAMO TELECOM IBERIA SAU enpresaren eta Odietako Udalaren artean telekomunikazio zerbitzuak emateko. Bideko erabakiak hartzea.

ERABAKI DA:

ODIETAKO UDALA



AYUNTAMIENTO

DEL VALLE DE

ODIETA

31799 - RIPA

(Navarra-Nafarroa)

LEHENA.- Hasiere batez onestea kokaleku baten erabilera lagatzeko kontratua ADAMO TELECOM IBERIA SAU enpresaren eta Odietako Udalaren artean telekomunikazio zerbitzuak emateko, eta, horretarako, Odietako Udalaren jabari publikoko honako espazio honen desafektazioa: Odietako udaletxe (San Sebastian kalea 107. ERRIPA) eraikinaren iparraldeko fatxadaren itsatsirik dagoen metro karratu bateko espazioa, sare elektrikoko konexioa duena.

Espazio horren desafektazioaren xedea izanen da Kokaleku bat izatea bereziki prestatua sare-burutza bat instalatu, muntatu, ustiatu, mantendu, kontserbatu, konpondu eta aldatzeko, bere elementu eta osagarri guztiekin ("Telekomunikazio ekipoak"), eta hori guztiaren xedea da ADAMO enpresa eskatzaileak telekomunikazio eta/edo difusio zerbitzuak ematea Odietako ahalik eta bizilagun gehieni.

BIGARRENA.- Erabaki hau jendaurrean paratzea hilabete bateko epean Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontaktzen hasita, eta, era berean, udalaren iragarki taulan eta web orrian argitaratuko da.

Jendaurreko epea iraganik, Udalak, osoko bilkuran, aurkezturiko alegazioen ebazpena eta espedientearen behin betiko onespina erabakiko ditu; horretarako Udalbatzako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoa beharko du.

Behin aurreko erabaki hori hartuta, hala badagokio, erabilera lagatzeko Kontratua sinatuko da ADAMO enpresa eskatzailearekin.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea ADAMO entitate eskatzaileari, bidezko ondorioak izan ditzan."

- Ikusirik iragarkiak argitaratu zirela jendaurreko epeaz ohartaraziz bai Nafarroako Aldizkari Ofizialean (2024ko urtarrilaren 25eko 19. zenbakia) bai udalaren iragarki taulan eta web orrian.

- Ikusirik jendaurreko epean ez dela alegaziorik ez oharrik aurkeztu

- Ikusirik Odietako Udalaren eta ADAMO TELECOM IBERIA SAU telekomunikazioko enpresa eskatzailearen artean sinatu beharreko **KOKALEKU BATEN ERABILERA LAGATZEKO KONTRATUA**ren edukia zeinaren xedea baita enpresa horrek espazio "kokaleku" hori izatea bereziki prestatua berak edo hirugarren batek sare-burutza bat instalatu, muntatu, ustiatu, mantendu, kontserbatu, konpondu eta aldatzeko, bere elementu eta osagarri guztiekin ("Telekomunikazio ekipoak").

- Ikusirik lagatze eta espediente horren azken xedea dela ADAMO enpresa eskatzaileak Odietako ahalik eta bizilagun gehieni telekomunikazioko zerbitzuak eta/edo difusioa.

ERABAKI DA

LEHENA.- Behin betikoz onestea ADAMO TELECOM IBERIA SAU enpresaren eta Odietako Udalaren artean kokaleku baten **erabilera lagatzeko kontratua** telekomunikazioko zerbitzuak emateko eta, horretarako Odietako Udalaren **honako jabari publikoko espazio honen desafektazioa**: Odietako udaletxe (San Sebastian kalea 107. ERRIPA) eraikinaren iparraldeko fatxadaren itsatsirik dagoen metro karratu bateko espazioa, sare elektrikoko konexioa duena.



AYUNTAMIENTO

DEL VALLE DE

ODIETA

31799 - RIPA

(Navarra-Nafarroa)

Espazio horren desfektazioaren xedea izanen da Kokaleku bat izatea bereziki prestatua sare-burutza bat instalatu, muntatu, ustiatu, mantendu, kontserbatu, konpondu eta aldatzeko, bere elementu eta osagarri guztiekin ("Telekomunikazio ekipoak"), eta hori guztiaren xedea da ADAMO enpresa eskatzaileak telekomunikazio eta/edo difusio zerbitzuak ematea Odietako ahalik eta bizilagun gehieni.

BIGARRENA.- Odietako Udalaren eta ADAMO TELECOM IBERIA SAU telekomunikazioko enpresa eskatzailearen artean sinatu beharreko **KOKALEKU BATEN ERABILERA LAGATZEKO KONTRATUA**ren edukia zeinaren xedea baita enpresa horrek espazio "kokaleku" hori izatea bereziki prestatua berak edo hirugarren batek sare-burutza bat instalatu, muntatu, ustiatu, mantendu, kontserbatu, konpondu eta aldatzeko, bere elementu eta osagarri guztiekin ("Telekomunikazio ekipoak") eta Alberto Urdaniz Elizondo **alkateari berariazko baimena ematea** kontratua sinatzeko bere izenean Odietako Udalaren izenean eta hura ordezkatzuz."

5. Hitzarmen bat onestea Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziarekin (PAGNA).

Lehenik eta behin, Urdaniz alkateak bertaratuei gaia esan eta azaldu die, eta hitzartze hori bilkurako grabazioan jaso da.

Ondoren, EH Bilduko udal taldearen Ane Miren Buitron zinegotziak hartu du hitza, eta hitzartzea osoko bilkurako grabazioan jaso da. Zalantza batzuk planteatu eta argitzeko eskatu du, hala nola: zer lokala da Udalak elkarte honi erabiltzeko laga behar diona? Jarduketa hori soilik Odietak egingen luke edo eskualdeko beste udal batzuekin batera, hala nola Ultzamakoarekin? Gai honen jarraipenaz arduratuko den kudeaketa batzorderen bat egonen da? Gai honi zer publizitate eman behar zaio? Eta abar.

Urdaniz alkateak erantzun dio PAGNA elkarteak udal jakin bakoitzarekin planteatzen duela harremana, lokal bat behar izanez gero, lokal hori bilatu eta gaitu egingo litzatekeela, baina lankidetzaz "puntuala" dela, eta kasu zehatzetarako planteatzen dela, eta ez jarraitua edo hilekoa. Adierazi du, halaber, gai horri egingo zaion jarraipena eta bileren maiztasuna hitzarmenari ematen zaion erabileraren arabera izango dela, eta PAGNA elkarteak berak markatuko edo eskatuko dituela jarduerak horiek.

Gaia osoko bilkuran bertaratu zinegotzien artean komentatu ondoren, **aho batez ERABAKI DA** gai-zerrendako puntu hau.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47. artikulua onorioetarako, adierazi behar da erabaki hau **udalbatzako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoarekin** hartu dela. Hona hemen erabakia, hitzez hitz:

"Gaia: Hitzarmen bat onestea Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziarekin (PAGNA).

ODIETAKO UDALA



AYUNTAMIENTO

DEL VALLE DE

ODIETA

31799 - RIPA

(Navarra-Nafarroa)

.- Ikusi eta aztertu da Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak eta Pertsonen Autonomia eta Garapenerako Nafarroako Agentziak 2018ko ekainaren 7an sinatutako hitzarmenari atxikitzeko proposamena, Federazioak bidalia, Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan aritzeko bere garapenean nahasmenduak dituzten edo izateko arriskua duten hiru urtetik beherakoei arreta goiztiarreko zerbitzua emateko, zerbitzu hori bizi diren herrira edo hurbilenera hurbiltzeko, bereziki lokalak lagatzearen bidez.

.- Kontuan izanik Odietako Udalak interesa duela zerbitzu hori behar duten bere inguruko adingabeei modu lokalizatuan emateko, lankidetzaz-hitzarmen horrek ez dakarrela ez eskuordetzerik, ez eginkizunen eta/edo jardueren transferentziarik administrazioen artean, ez eta lotutako kostu ekonomiko nabarmenik ere, eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean eta Gizarte Zerbitzuei buruzko irailaren 14ko 15/2006 Foru Legean aurreikusitako arau-esparruan formalizatzen dela.

ERABAKI DA

LEHENA.- ONARTZEA Odietako Udala atxikitzea Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak eta Nafarroako Pertsonen Autonomia eta Garapenerako Agentziak haurrei arreta goiztiarra emateko zerbitzua ematen laguntzeko sinatutako lankidetzaz-hitzarmenari.

BIGARRENA.- Odietako Udalaren izenean eta ordezkartzan, hitzarmen hori gauzatzeko beharrezkoak diren agiri guztiak sinatzea, klausula guztiak onartuz eta bere gain hartuz.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari helaraztea, Agentziari bidal diezaion. "

6.- 2024ko urtarrilaren 1eko biztanleen udal-errolako zifrak onartzea, Odietako udalerriari dagozkionak.

Lehenik eta behin, Urdaniz alkateak bertaratuei gaia komentatu eta azaldu die, eta hitzartzea bilkurako grabazioan jaso da.

Jarraian, EH Bildu Udal Taldeko Ane Miren Buitrón zinegotziak hitz egin du, eta osoko bilkuraren grabazioan jaso da. Bere ustez, orain onartu beharreko zifrak ez dira benetakook, eta Urdaniz alkateak erantzun dio Estatistikako Institutu Nazionalak atera eta onartu dituen zifrak direla.

Azkenik, osoko bilkurara bertaraturiko zinegotziek gaia komentatu ondoren, **aho batez ADOSTU DUTE** gai-zerrendako puntu hori.



AYUNTAMIENTO

DEL VALLE DE

ODIETA

31799 - RIPA

(Navarra-Nafarroa)

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47. artikulua ondo onartzeko, adierazi behar da erabaki hau **udalbatzako kideen legeko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoarekin** hartu dela. Hona hemen erabakia, hitzez hitz:

"Gaia: Hitzarmen bat onestea Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziarekin (PAGNA).

.- Ikusirik Biztanleriaren eta Lurralde Mugaketaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 11ko 1690/86 Errege Dekretuaren edukia.

.- Ikusirik Udal honetan 22/01/01etik 22/12/31ra bitartean eroldako mugimenduei buruz dagoen dokumentazioa, bai eta 2024ko urtarrilaren 1eko Biztanleen Udal Erroldako zifren zenbakizko laburpenak ere.

ERABAKI DA

1.- 2024ko urtarrilaren 1eko Biztanleen Udal Erroldako zifrak eta zenbakizko laburpenak berritzea onartzea, guztira, **385 pertsona** (209 gizon eta 176 emakume). Dokumentazio hori behar bezala izapidetuta espedienteari batu zaio.

2.- Erabaki honen berri ematea Estatistikako Institutu Nazionalari eta/edo dagozkien organismoek, baita 368 biztanleko (200 gizon eta 176 emakume) zifra ere, aurreko puntuan onarturiko berrikuspenaren emaitza gisa.

7.- Zenbait organismo eta gobernu kanpoko erakunderi 2024an eman beharreko dirulaguntzak.

Lehenik eta behin, Urdaniz alkateak gaia komentatu eta azaldu du, eta hitzartze hori bilkurako grabazioan jaso da.

Gaia osoko bilkurara bertaraturiko zinegotziek gaia komentatu ondoren, **aho batez AOSTU DUTE** gai-zerrendako puntu hori.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47. artikulua ondo onartzeko, adierazi behar da erabaki hau **udalbatzako kideen legeko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoarekin** hartu dela. Hona hemen erabakia, hitzez hitz:

"Gaia: Zenbait organismo eta gobernu kanpoko erakunderi 2024an eman beharreko dirulaguntzak.

2024. urte honetan erabaki da 2.600 euro erabiltzea GKEei eta Garapenerako Lankidetzaren Proiektuei emateko.

Honakoak izanen dira laguntza horien hartzaileak:



AYUNTAMIENTO

DEL VALLE DE

ODIETA

31799 - RIPA

(Navarra-Nafarroa)

.- 1.300,00 euro: "Yala Nafarroa Palestinarekin Plataforma (YNP).

.- 1.300,00 euro: "Paris 365 Elkartasun Jantokia".

Zenbateko horiek 2024ko ekitaldiko aurrekontuetako "Garapenerako lankidetzaproiektuetarako dirulaguntzak" partidaren kontura ordainduko dira. Partida horrek 1 9250 48200 zenbakia du. "

8.- 2024ko martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Eguneko Adierazpen Instituzionalari atxikimendua.

Lehenik eta behin, Urdaniz alkateak bertaratuei gaia komentatu eta azaldu die, eta hitzartzea bilkurako grabazioan jaso da. Ultzamaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzutik mankomunitateko udalei onartzeko igorritako testua da.

Gaia osoko bilkurara bertaraturiko zinegotzien artean komentaturik, **ahoz batez ADOSTU DUTE** gai-zerrendako puntu hori.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47. artikulua ondo onartzeko, adierazi behar da erabaki hau **udalbatzako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoarekin** hartu dela. Hona hemen testua, hitzez hitz:

"Gaia: 2024ko martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Eguneko Adierazpen Instituzionalari atxikimendua.

MATXISMOA ISILARAZI

Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, agerian utzi nahi dugu berdintasun politika publikoek eta feminismoak duten balioa, gizarte-mugimendu eta mugimendu teoriko eta politiko gisa, emakumeek eta gizonek eskubide berak dituzten berdintasunezko gizarte libre baterantz aurrera egiteko. Erdietsitakoa gora behera, benetako berdintasunerantz aurrera egiten jarraitu behar dugula aldarrikatzen jarraitzen dugu.

Feminismoak ibilbide luzea egin du mugimendu sozial eta politiko gisa, eta historian zehar genero-desberdinkerien aurrean emakumeek duten ezinegona adierazteko modu baketsuak izan ditu ezaugarri beti. Feminismoa ezagutza zientifikoa ere bada, sistema patriarkalari eusten dioten elementuak teorizatu eta kontzeptualizatzeko azterketa eta analisi ibilbide luze batekin. Baina mugimendu feministaren lorpen bakoitzak beti izan du erreakzio matxista bat, kontrako erantzun bat, ezarritako ordena sozialari eustea defendatzeko eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun-harremanak ezabatuko dituen benetako eraldaketa soziala saihesteko. Erreakzio hori bereziki nabarmena izan da azken urteotan, batez ere aldarrikapen feministak agenda politikoan sartu direnetik.



AYUNTAMIENTO

DEL VALLE DE

ODIETA

31799 - RIPA

(Navarra-Nafarroa)

Informazioaren teknologiek eta ingurune digitalek, oro har, beste esparru batzuk sortzea erraztu dute, eta esparru horietan, hain zuen, erreferente eta/edo programa feministen eta berdintasun arloko edozein aurrerapen edo lorpenen aurkako eraso antolatua eta deskalifikazioak sustatzen dira. Feminismoaren eta emakumeen aurkako gorroto-diskurtsoa Interneten espazioak hartzen ari da, eta manosfera izenarekin ezagutzen dugunaren inguruan biltzen da. Inguru horretan antolatzen da matxismoa eta bertatik hedatzen dira mezu anti-feminista eta misoginoak. Gure testuinguruan, Manosferako talde edo azpikultura bereizgarrienak dira gizonen eskubideen aldeko elkarre edo taldeak, sedukzioaren guruak, influencer eta eduki-sortzaile antifeministak, foroak, inelak...

Matxismo digitala batez ere gazteengan eragina duen komunikazio- eta harreman-modu berri bat da. Ideiak eta interpretazioak azkar eta berehala hedatzen dira, eta mezuak etengabe sortzen dira, zehaztasunik eta inolako analisi edo eztabaida kritikorik gabe, horiek indartzen dituzten daturik edo ebidentziarik gabe. Maskulinitate tradizionalaren eredu betiketza xede duten gezurren eta fake news delakoen garaian bizi gara. Maskulinitate horretan gizonak eta emakumeek ezarritako generorolak betetzen jarraitzea sustatzen da. Desberdinkeriak zalantzan jartzen dituzten eta, are gehiago, emakumeek gizonak menderatu nahi dituztela iradokitzen duten mezuak; sexu-indarkeria hutsaldu edo are emakumeen aurkako indarkeria existitzen dela ukatzen dutenak; emakumeen askatasuna behin eta berriz zalantzan jartzen dutenak... Internet hartzeaz gain, mezu horiek instituzio publikoetan oihartzuna dute, eta aurrerapen berrien lorpena zailtzen dute, dagoeneko adostasun soziala zuten eztabaidak berriz ere zalantzan jarriz.

Berdintasuna deserosoa da bizi dugun gizartea birpentsatzera eta modu kritikoan aztertzerara behartzen gaituelako. Ikasitakoa etengabe zalantzan jartzen du pertsonen askatasunez eta baldintzatzailerik gabe erabaki dezaketen eredu berriak eraikitzeko. Feminismoa, historian zehar emakumeen ahalduntzea bultzatu duena eta gizarte aldaketa handiak lortu dituena, oso kritikoa da ere maskulinitate hegemonikoarekin (tradizionala), eta hainbat hamarkada daramatza gizonak interpelatzen. Zuzeneko interpelazio horrek beldurra eta aldaketarekiko erresistentziak eragiten ditu gelditasunean erosoago dauden gizarteko sektore batzuetan. Manosferak bere burua zalantzan jartzeko eta aldatzeko beharrik ez duten espazio bat eskaintzen die, arrakalaturako maskulinitatea leheneratzeko aukera ematen diena.

Internet eztabaida publikoa polarizatu eta inpunitatea errazten duen etsaitasunezko toki bihurtzen duen diskurtso horren aurrean, beharrezkoa da emakumeek lortutako eskubideak finkatzea bermatzen duten berdintasun politikak sustatzen jarraitzea, eztabaida publikoa errespetutik egitea sustatzea, agenda politikoan desberdinkeriak agerian utziz, aurrera egiten jarraitzeko.

Adierazpen hau bultzatzen dugun Toki Entitateek honako konpromiso hauek hartu ditugu:



AYUNTAMIENTO

DEL VALLE DE

ODIETA

31799 - RIPA

(Navarra-Nafarroa)

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen jarraitzea gure esku-hartze eremuan politika publikoen bitartez eta udal-arau, -plan eta -proiektu guztietan genero-ikuspegia txertatuta.

Azterketa eta ikerketa feminista bultzatzen jarraitzea gure testuinguruan, pertsonen bizitzako esparru eta etapa guztietan dauden desberdinkeriak ikusarazteko.

Mugimendu feministaren ekarpenak eta lana aitortzea, bidezko eta berdintasunezko gizartea lortzeko, erakundeekin hitz egiteko guneak sortuz.

Adin guztietako gizonekin esku-hartzea bultzatzea, berdintasunezko maskulinitate-ereduen eraikuntza sustatzeko.”

Ondoren EH Bildu udal taldeko Ane Miren Buitron zinegotziak hartu du hitza, eta hitzartze hori osoko bilkurako grabazioan jaso da, eta horri buruz honako proposamen hau egin du: jarduera zehatzak egiteko erabakia ez gelditzeko asmo oneko adierazpen hutsean. Horretarako honako proposamen zehatzak egin ditu: Udalaren iragarkietan eta komunikazioetan hizkuntza inklusiboa erabiltzea, intereseko gaiei buruzko hitzaldiak antolatzea, Udalaren Berdintasun batzordeko ordezkariak gai horiek Makomunitateko Berdintasun teknikariari planteatu diezaion.

Urdaniz alkateak ekimen horien guztien alde agertu da.

9.- Iruñerriko Mankomunitatearen estatutuen 6. artikulua aldatzea, “8. Mugikortasuna” izeneko atal berri bat sartzeko.

